


Finantzazkoak ez diren enpresen aktiboen %47 industria sektorekoak dira

Enpresa-ondarearen %38 mikroenpresetan da, eta hauek enplegu guztiaren %42 hartzen dute

Euskal AEko enpresa ez-finantzazkoen zenbatetsitako ondarea 169.938 milioi euro dira; %47, industria sektorean. Gainerako aktiboak, %44 zerbitzuetan eta %9 eraikuntzan, Eustaten datuen arabera. Hiru sektore hauetako ez-finantzazko enpresek 818.299 pertsona enplegatzen dituzte Euskal AEn, 2007an enplegatutako guztien %80,6.

Enplegu-geruzen ondare-sailkapenak baieztatzen du enpresa handienak (250 langile baino gehiago) direla trinkoenak kapitalean. Horrela, zera ikusten dugu: mikroenpresek (1-9 langile), txikiek (10-48) eta ertainek (50-249) enplegatuen %88 okupatzen dute, baina hiru geruza hauek aktiboen %76ren jabe besterik ez dira. Aitzitik, enpresa handiak – okupazioaren %12- ekonomiaren guztizko aktiboaren %24 jabe dira.

Euskal AEko ez-finantzazko enpresen aktibo eta pasiboa 2007



Iturria: Eustat

Balantzearen aktiboan, Aktibo finkoa %50,3 da, eta Aktibo zirkulatzailea %49,7. Aktibo finkoaren osagarrien artean Ibilgetu materiala nabarmendu behar, %52, eta Ibilgetu finantzarioa, %39. Aktibo zirkulatzailearen barruan bi osagarri nabarmentzen dira: Zordunak (%47) eta Izakinak (%27).

Balantzearen Pasiboari begiratuz gero, hona hemen kontu garrantzitsuenak: Baliabide propioak (%41,0); Pasibo zirkulatzailea (%36,8) eta Epe luzerako galdagarria (%22,2). Baliabide propioen artean, bi osagarri nabarmen: Erreserbak (%40) eta Kapital harpidetua (%32).

Euskal AEko Ez-finantzazko enpresen ondare masa nagusiak. 2007 (milaka €)

	EUSKAL AE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Aktibo finkoa	85.443.360	12.416.040	49.006.338	24.020.982
Aktibo zirkulatzaile osoa	84.493.342	14.875.502	43.515.097	26.102.743
-Izakinak	22.818.202	4.950.133	10.922.079	6.945.990
-Erabilgarria	8.428.881	1.191.911	4.485.447	2.751.523
-Bihurgarria	53.246.259	8.733.458	28.107.571	16.405.230
Aktibo osoa	169.936.702	27.291.542	92.521.435	50.123.725
Baliabide propioak	69.716.641	11.287.316	37.126.433	21.302.892
Epe luzeko galdagarria	37.675.892	5.531.333	21.774.556	10.370.003
Pasibo zirkulatzailea	62.544.169	10.472.893	33.620.446	18.450.830
Pasibo osoa	169.936.702	27.291.542	92.521.435	50.123.725
Maniobra-funtsak	21.949.173	4.402.609	9.894.651	7.651.913

Iturria: Eustat

Balantzeak aztertuz gero, **Maniobra-funtsa** (Aktibo zirkulatzailearen eta Pasibo zirkulatzailearen arteko aldea) positiboa da, 21.949 milioi euro; alegia, epe motzerako zorrak (Epe motzerako pasibo galdagarria) kitatzeko nahiko baliabide sortzen da.

Zorpetze-ratio osoak agerian jartzen du besteren funtsen eta baliabide guztien arteko harremana, eta Euskal AEn %59an da, aurreko aldiaren aldean ehuneko ia bi puntu gutxiago. Ratio honek adierazten du gure aktiboaren ia bi heren besteren baliabideekin finantzatuta daudela.

Errentagarritasun ekonomikoaren ratioa %7,2 da; haien aktibo guztien gainean enpresek lortzen duten batez besteko etekinaren berri ematen du. **Errentagarritasun finantzarioak** enpresek beren funtsen gainean lortzen duten batez besteko etekinaren berri ematen du; Euskal AEko enpresena %13,6 da. 2006an bi ratiook %6,8an eta %13,7an ziren.

Aktiboaren sektoreen arteko banaketa ikusiz gero, garbi ikusten da industriaren garrantzia Euskal AEko ekonomiarako. Aktiboen %47 industriaren sektorekoak dira, eta hemen enplegatuen %31 ari da, besterik ez. Eraikuntzak aktiboen %9 eta enpleguaren %12 ditu; merkatuko zerbitzuek ondarearen %44 eta enpleguaren %56 dute.

Eraikuntzako enpresen aktiboen osaketan badira aldeak, industria eta zerbitzuko enpresen aldean. **Balantzearen pasiboaren osaketari** begiratuz gero, eraikuntzaren epe motzerako zorpetzea %53an da; industriak %34an eta merkatuko zerbitzuetan %37.

Pasiboaren osaketa ezberdin hauen isla da zorpetze osoaren ratioa; eraikuntzan %70,2 da, %56,6 industrian eta %59,2 merkatuko zerbitzuetan.

Sektore-errentagarritasunari dagokionez: industrian (%7,6); zerbitzuetan (%6,9); eraikuntzan (%6,9); alegia, industriak du handiena. Bestela gertatzen da errentagarritasun finantzarioan: eraikuntzan (%18,4), industrian (%13,3); zerbitzuetan (%13,3); eraikuntzak handiena.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

+Tlf:+34-945-01 75 13 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es